

PETTI BUHAME

LEHEN PEREDIKÛA

1
Agur, agur, jente honak
Herriarrak et' arrotzak
Biltzen gütü pastoralak
Garindaineko herri ejerrak

2
Aspaldian herri hontan
Bizi dir' eüskal üsantxak
Kantariak dantzariak
Maskaradak eta pastoralak

3
Heben gira züekilan
Maitarzüna bihotzean
Joan direnen izenean
Pastoralaren ildoan

4
Iragan dira urteak
Xukatü dira nigarrak
Eta biziaren tirriak
Eman deizk' indar berriak

5
Egüngo gure süjeta
Haütatü dügü arrunta
Buhame baten bizia
Hartürük lema bezala

6
Eüskal Herrian baziren
Buhameak herrietan
Ez beti onts' ikusirik
Jente honen begietan

7
Hemeretzigerren mentean
Iragaiten da historia
Buhameen mündüarekin
Pettiren bizi samina

8
Ütziko düt perediküa
Hasiko beita trajería
Zabal zabalik bihotza
Goza ezazüe pastoralak

LEHEN PEREDIKUA

1
Agur, agur, jende onak,
herriarrak eta arrotzak.
Biltzen gaitu pastoralak,
Garindaineko herri ederrak.

2
Aspaldian herri honetan
bizi dira euskal usantzak,
kantariak, dantzariak,
maskaradak eta pastoralak.

3
Hemen gara zuekin
maitasuna bihotzean,
joan direnen izenean,
pastoralaren ildoan.

4
Iragan dira urteak,
xukatu dira negarrak,
eta biziaren tirriak
eman dizkigu indar berriak.

5
Egungo gure sujeta
hautatu dugu arrunta,
buhame baten bizia
harturik lema bezala.

6
Euskal Herrian baziren
buhameak herrietan,
ez beti ontsa ikusirik
jende onen begietan.

7
Hemeretzigarren mendean
iragaten da historia,
buhameen munduarekin
Pettiren bizi samina.

8
Utziko dut peredikua,
hasiko baita tragería.
Zabal-zabalik bihotza,
goza ezazue pastoralak.

tirria: nahi, desira

sujet: gai

buhame: ijito

Satan gehienak: Su eta Ke

Sü
9

Norat dük holako estroxa
Bazterrak oro sü eta gar
Non dük egünko lankia
Ezdük deüsere gorde behar

Ke
10

Banoak egün Garindainerat
Han beitükegü zer nahas
Buhame eta jaunttoeki
Ez dütük liskarrak eskas

Sü
11

Nagusi handia plañitü dük
Auhertü ginela obran
Gaixo lürtiar pürki pegesa
Gü gabe 're beti aharran

Ke
12

Badiat neskatila gazte bat
Izigarriko primü ejerra
Buhame baten begian
Erreazteko ülia bezala

Sü
13

Nik Napoleon gillikatzen diat
Bere anbizione handian
Osaba koditü nian
Iloba dük ber "trükean"

Ke
14

Hi handiak nik xeheak
Behar dizkiagü ontsa bazkatü
Ürguillüaren manateran
Zare beltzean oro sakatü

Su
9

Norat duk holako eztroxa?
Bazterrak oro su eta gar.
Non duk egungo langia?
Ez duk deus ere gorde behar.

Ke
10

Banoak egun Garindainerat,
han baitukegu zer nahas.
Buhame eta jaunttoekin
ez dituk liskarrak eskas.

Su
11

Nagusi handia pleinitu duk
alfertu ginela obran.
Gaixo lurtar, puruki pegesa,
gu gabe ere beti aharran!

Ke
12

Badiat neskatila gazte bat,
izugarriko prima ederra,
buhame baten begian
errearazteko eulia bezala.

Su
13

Nik Napoleon kilikatzen diat
bere anbizio handian.
Osaba koditu nian;
iloba duk ber "trukean".

Ke
14

Hik handiak, nik xeheak,
behar ditiagu ontsa bazkatu
urguilluaren manjateran.
Zare beltzean oro sakatu.

gehien: nagusi

eztroxa: presa

langia: lantegi, lanleku

dukegu: izango dugu

pleinitu: kexatu

puruki: garbiri, zeharo

pegesa: hutsal

aharra: liskar

prima: alaba nagusi

errearazi: limurtu

kilikatu: zirikatu

koditu: zirikatu

manjatera: aska, ganbela

zare: saski, otarre

sakatu: ezarri

1. JELKALDIA

1845ko Eguberri gaua Garindainen

Mathurin Bidegorri**15**

Non düt atorra xuria
 Ez düzü kaminetean
 Erna zite lisatzera
 Jaunak jaun ager gitian

16

Hau dügüla gaü ederra
 Izarrak dantzan zelüan
 Karroina date sarriko
 Egür hona ezar süan

Maddi Bidegorri**17**

Ütziko dügü labean
 Antzara et' anabaka
 Prest dükegü aiharia
 Mahaina 're ezarria

18

Kümitatü dit Apeza
 Gurekilan aiharitera
 Gelaria galdüz geroztik
 Gaixoa dügü ber bera

Ainez**19**

Hartüko dit kaputxina
 Elürra düzü kanpoan
 Lüze dikezügü meza
 Et' ez berorik elizan

Neskatoa**20**

Nik süa etxekiko dit
 T' ützüliko errekoa
 Zoazte trankil kantatzera
 Jesús Haurraren sortzea

1. JELKALDIA**Mathurin Bidegorri****15**

Non dut atorra zuria?
 Ez da kabinetean.
 Erna zaitez lisatzera,
 jaunak jaun ager gaitezen.

16

Hau dugula gau ederra,
 izarrak dantzan zeruan.
 Karroina dateke sarriko.
 Egur ona ezar suan.

Maddi Bidegorri**17**

Utziko dugu labean
 antzara eta anabaka.
 Prest dukegu afaria;
 mahaia ere ezarria.

18

Gomitatu dut apeza
 gurekin afaltzera.
 Gelaria galduz geroztik,
 gaixoa dugu berbera.

Ainez**19**

Hartuko dut kaputxina;
 elurra da kanpoan.
 Luze dukegu meza,
 eta ez berorik elizan.

Neskatoa**20**

Nik sua atxikiko dut,
 eta itzuliko errekoa.
 Zoazte trankil kantatzera
 Jesus Haurraren sortzea.

dateke: izango da**karroin:** izotz**sarriko:** laster**anabaka:** lapikoko**dukegu:** izango dugu**gomitatu:** gonbidatu**gelari:** zerbitzari**kaputxin:** kapusai**dukegu:** izango dugu**atxiki:** gorde

2. JELKALDIA**Apeza****21**

Haurrideak Egüerriz
Boztario eta argi
Egin diezogün batzarri
Jinkoaren semeari

KANTA I**Airerik ederrenetan****a1**

Aiderik ederrenetan
Dügün orok betan
Khanta Jesüsen sortzia
Haren zelütik jaixtia
Jin izan da gure gana
Oi zer huntarzüna

a2

Ütz atzie ütz artzainak
Zien arthaldiak
Ziek zütie galtatzen
Praubiak beitütü deitzen
Errege sortü berriak
Jesüs haur maitiak

2. JELKALDIA**Apeza****21**

Haurrideak, Eguberriz
boztario eta argi.
Egin diezaiogun batzarri
Jainkoaren semeari.

KANTA I**Airerik ederrenetan****a1**

Airerik ederrenetan
dugun orok betan
kanta Jesusen sortzea,
Haren zerutik jaistea.
Jin izan da guregana.
Oi, zer ontasuna!

a2

Utz itzazue, utz, artzainak,
zuen artaldeak.
Zuek zaituzte galdatzen,
pobreak baititu deitzen
Errege sortu berriak,
Jesus haur maiteak.

boztario: poz, alaitasun**batzarri:** abegi, harrera**aire:** doinu**dugun:** dezagun**betan:** batean, batera**jin:** etorri**galdatu:** eskatu

3. JELKALDIA

Eguberri buhameen auzoan

Hartz**22**

Mekaben sos xakel tzarra
 Ixil hadi beti txanpa
 Kikitza so'zan kakabiari
 Egosi denez kania

Kikitza**23**

Etxeko jaunek gaur diñe
 Gaüerditan aiharia
 Aments gaixtoak egin betze
 Beren pantzoilak gaintika

Niakosa**24**

Gaizkixe gütün gü're
 Kani gizena kakabian
 Ardo berria barrikan
 Xinbla (gaztain) erreak paderan

Osaba**25**

Petti so'ezak zelüa
 Zabala eta zohardia
 Izar multzoen ikustera
 Joanen gütük aihal eta

Petti**26**

Gaur jaitsirik Jesüs Haurra
 Aingürüen hegaletan
 Ezta sortü jauregian
 Bena ardien manateran

Rita**27**

Petti zer dihiloa hizan
 Uste dük ardien askan...

Kiko**28**

Eta meta lasto meta
 Zabal ezan boteila hau
 Utzi ardiak artegian
 Edan behar diñagü "rrrrau"

3. JELKALDIA**Hartz****22**

Mekaben sos, xakel tzarra!
 Isil hadi; beti txanpa!
 Kikitza, so egion kakabiari,
 egosi denetz kania.

Kikitza**23**

Etxeko jaunek gaur dinatē,
 gauerdietan, afaria.
 Amets gaiztoak egin bitzate,
 beren pantzoilak gaindika.

Niakosa**24**

Gaizkixe gaitun gu ere:
 kani gizena kakabian,
 ardo berria barrikan,
 xinbla erreak paderan

Osaba**25**

Petti, so ezak zerua
 zabala eta zohardia.
 Izar-multzoen ikustera
 joanen gaituk afaldu eta.

Petti**26**

Gaur jaitsirik Jesus Haurra
 aingeruen hegaletan,
 ez da sortu jauregian,
 baina ardien manjateran.

Rita**27**

Petti, zer dibiloa haizen!
 Uste duk ardien askan...

Kiko**28**

Eta meta, lasto-meta!
 Zabal ezan botila hau.
 Utzi ardiak artegian.
 Edan behar dinagu. Rrrrau!

xakel (ijit.): txakur
txanpa: zaunka
kakabi (ijit.): lapiko
kani (ijit.): oilo

pantzoil: sabel handi

kani (ijit.): oilo
kakabi (ijit.): lapiko
xinbla (ijit.): gaztain
padera: danbolin

zohardi: garbi eta izartsu**afaldu eta**: afaldu eta gero**manjatera**: aska, ganbela**dibilo** (ijit.): zoro**meta, lasto-meta**: bla-bla-bla

4. JELKALDIA

Inauteriak. Garindaineko maskaradak

Kabana Handia

29a

Jaunak eta andereak,
Euskaldünak eta erdaldünak,
Xiberotarrak eta Manezak...
Jente hunak eta Buhameak !
Gü gira Garindaineko beltzeria !

29b

Segidan aurkeztüko deitzüet
ene kautere adixkideak !

Lehenik Isidor, aigü hunat,
hunek sortü danik!
ez dü xantzarik ükhen !
Mütü sortü zeikün !
Ordüdanik komünikatzeko,
txülüla dü baliatzen !

29c

Bigarren hau, Andreas dügü
hunek sortü danik
ez dü xantzarik ükhen,
Isidoren anai delako !
Sobera denbora elhestatzen iganik
anaiarekila,
pottikoa net gortü zaikü !

29d

Hirugarren hau Pelüte dügü,
aigü hunat bena ez hadila sobera huillant,
hunek ere ez dü xantzarik ükhen
Agot seme delakoz !

29e

Azken hau, bide bazterrean atzaman
eta Lamina deitü dügü,
gaüz lanean ari den günean
zerbait bihamen goizan
betik ments delakotz !

29f

Eta azkenik gazte eta auher horien
bide erakuslea,
Ni ! Kabana ! Kabana Handia !
Begitarte propia,
korpitz miresgarria,
botz ezinago eztia
eta ohean egiazko kabalea !

4. JELKALDIA

Kabana Handia

29a

Jaunak eta andereak,
euskaldunak eta erdaldunak,
xiberotarrak eta manexak,
jende onak eta buhameak!
Gu gara Garindaineko beltzeria!

29b

Segidan aurkeztuko dizkizuet
ene kauter adiskideak!

Lehenik, Isidor. Haigu honat!
Honek sortudanik
ez du xantzarik ukan!
Mutu sortu zitzaigun!
Ordudanik komunikatzeko,
txirula du baliatzen!

29c

Bigarren hau Andreas dugu.
Honek sortu danik
ez du xantzarik ukan
Isidorren anaia delako!
Sobera denbora elestatzen iraganik
anaiarekin,
putikoa net gortu zaigu!

29d

Hirugarren hau Pelute dugu.
Haigu honat, baina ez hadi sobera hullan.
Honek ere ez du xantzarik ukan,
agot seme delakoz!

29e

Azken hau bide bazterrean atzeman,
eta Lamina deitu dugu,
gauaz lanean ari den günean
zerbait biharamun goizean
beti ments delakotz!

29f

Eta, azkenik, gazte eta alfer horien
bide-erakuslea.
Ni! Kabana! Kabana Handia!
Begitarte propioa,
gorputz miresgarria,
botz ezinago eztia
eta ohean egiazko kabala!

kauter: maskaradako
antzezle

haigu: hator

sortudanik: jaio denetik

xantza: zorte

elestatu: mintzatu

putiko: mutiko

net: garbiro, zeharo

hullandu: hurbildu

ments: falta

propio: eder, eite oneko

kabala: abere

29g

Jenteziona eder hau aurkezturik,
 orai herri auzoen berri zonbait
 emanen deitzüegü.
 Hasteko, jakin ezazue
 Garindainen, Buhameak,
 jaunttoen alhaben kortesatzen hasi direla !
 Emazte horik etxek !

29h

Ondotik Urdiñarben, han lürra beltz...
 Bena soa ere bai haatik !
 Muskildiko herrian, gazna zahar franko
 Bena begiratzen düe baizik berentako
 Axalak aldiz txakürren hazteko
 Kauter igorten düe so beltz eta ostiko !

29i

Garindaineko jentea
 Erdia da Buhamea
 Aldiz beste partea
 Jente huna eta perfeita !

29j

Ütziko düt perediküa
 Segitüren beita trageria
 Azken kantore baten indarra
 Batzen zait doi-doia...

29g

Jendetza eder hau aurkezturik,
 orain herri-auzoen berri zenbait
 emanen dizkizuegu.
 Hasteko, jakin ezazue
 Garindainen buhameak
 jaunttoen alaben gorteatzen hasi direla!
 Emazte horiek atxiki!

29h

Ondotik, Urdiñarben, han lurra beltz,
 baina soa ere bai, haatik!
 Muskildiko herrian, gasna zahar franko,
 baina begiratzen dute baizik berendako.
 Azalak, aldiz, txakürren hazteko.
 Kauter igortzen dute so beltz eta ostiko!

29i

Garindaineko jendea
 erdia da buhamea.
 Aldiz, beste partea,
 jende ona eta perfektua!

29j

Utziko dut peredikua,
 segituko baita trageria.
 Azken kantore baten indarra
 baratzen zait doi-doia.

emazte: emakume
atxiki: gorde

so: begirada
gasna: gazta
begiratu: gorde
baizik: bakarrik, soilik
kauter: maskaradako
 antzezle

trageria: pastoral

baratu: gelditu

5. JELKALDIA

Bazko aldean, buhameak Muskildin eta
Urdiñarben bidlu dira

Kiko**30**

Erbizian miseria
Agrehian buha hotza
Ea Garaibi xokoan
Hobe dügünez aidea

Elias**31**

Hire moga gaixtoarekin
Lotsarazten dün jentea
Ikas baheza mintzatzen
Beterik lüken konitza

Niakosa**32**

Hau ogatxo janfutrea
Auherra lanari mintzo
Goizetik arrats artino
Ni aitzinean hi aldiz so

Hartz**33**

Bakoitzak bere enplegüa
Hi komertzioan gü arrantzün
Goiz goizean uhaitzean
Ez gütün hire behardün

Osaba**34**

Bake emazüe otoi
Bildü dügü gure doia
Egünak egünari dio
Har dizogün eskainia

Kikitza**35**

Goazen orai karrikala
Bihar "biharrari" ützi
Moletañi bat onddoeki
Errege ez date hobeki

5. JELKALDIA**Kiko****30**

Erbizian, miseria.
Agrehian, buha hotza.
Ea Garaibi zokoan
hobe dugunetz airea.

Elias**31**

Hire moga gaixtoarekin
lotsarazten dun jendea.
Ikas baheza mintzatzen,
beterik luken konitza.

Niakosa**32**

Hau ogatxo jaun-putrea!
Alferra lanari mintzo.
Goizetik arrats artio,
ni aitzinean. Hi, aldiz, so.

Hartz**33**

Bakoitzak bere enplegua.
Hi, komertzioan; gu, arrantzuan.
Goiz-goizean uhaitzean
ez gaitun hire behardun.

Osaba**34**

Bake emazue, otoi.
Bildu dugu gure doia.
Egunak egunari dio.
Har diezaiogun eskainia.

Kikitza**35**

Goazen orain karrikara.
Bihar "biharrari" utzi.
Moletañi bat onddorekin
Errege ez dateke hobeki.

buha (ijit.): haize**moga** (ijit.): aurpegi**konitza** (ijit.): saski**ogatxo** (ijit.): gizon**artio**: arte**uhaitz**: ibai**doi**: pixka**moleta(ñi)**: tortilla(txo)**dateke**: izango da

KANTA II

Haizearen seme

b1

Haizearen seme
Bizi gira libre
Ihor gü bezain trebe
Denboraren kide

b2

Haizearen seme
Deüseren ez jabe
Erresumarik gabe
Mündü hontaz aske

b3

Haizearen seme
Libertatez gose
Izanik 're pobre
Aberats girateke

b4

Haizearen seme
Bagoaz bideetan
Aire xahar bat ahoan
Haur bat besoetan

b5

Alegia ederrak
Fantasi handiak
Sütondoko historiak
Kitar akordeak

KANTA II

Haizearen seme

b1

Haizearen seme,
bizi gara libre.
Inor ez gu bezain trebe
denboraren kide.

b2

Haizearen seme,
deusen ez jabe.
Erresumarik gabe,
mundu honetaz aske.

b3

Haizearen seme,
libertatez gose.
Izanik ere pobre,
aberats garateke.

b4

Haizearen seme,
bagoaz bideetan.
Aire zahar bat ahoan,
haur bat besoetan.

b5

Alegia ederrak,
fantasia handiak,
sutondoko historiak,
gitarra-akordeak.

garateke: izango gara

aire: doinu

6. JELKALDIA**Petti****36**

Hau dūdala zorte hona
 Hitz ordū bat beno hobe
 Hor ziradea egiazki
 Ala zūtūt ilūsione

Ainez**37**

Jin nūk honaraxe gordaxka
 Agian jada beniz galtzen
 Arrazoa dūk mintzatzen
 Bena bihotzak salatzen

Petti**38**

Ainez segur ez dit nahi
 Arrenkūrarik ene gatik
 Hobe zünūke arrunt joanik
 Et' ez haboro honara jinik

Ainez**39**

Petti hau dela mündüa
 Gogorra bezain gaixtoa
 Zertarako ez günūke haüzü
 Bihotzari behatzea

Petti**40**

Txoria düzü airean
 Basurdea oihanetan
 Behar dizügü nahi al' ez
 Bizitü gure izatea

Ainez**41**

Petti har'zak mokanes hau
 Eta begira sakolan
 Honen bidez egon gitean
 Amiñi bat algarrekilan

6. JELKALDIA**Petti****36**

Hau dudala zorte ona,
 hitzordu bat baino hobe.
 Hor zara egiazki,
 ala zaitut ilusio?

Ainez**37**

Jin nauk honaxe gordeka,
 agian jada banaiz galtzen.
 Arrazoa duk mintzatzen,
 baina bihotzak salatzen.

Petti**38**

Ainez, segur ez dut nahi
 arrangurarik enegatik.
 Hobe zenuke arrunt joanik,
 eta ez haboro hona jinik.

Ainez**39**

Petti, hau dela mundua,
 gogorra bezain gaiztoa.
 Zertarako ez ganuke haizu
 bihotzari behatzea?

Petti**40**

Txoria da airean,
 basurdea oihanetan.
 Behar dugu, nahi ala ez,
 bizitu gure izatea.

Ainez**41**

Petti, har ezak mokanes hau,
 eta begira sakelan.
 Honen bidez egon gaitezen
 amiñi bat elkarrekin.

jin: etorri**arrunt:** berehala
haboro: gehiago**zertarako:** zergatik
haizu: zilegi, libre**mokanes:** musuzapi
begiratu: gorde**amiñi:** pixka

KANTA III Misterioa

c1

Petti

Hau dela misterioa
mündüa beno zaharragoa
Zorte bat zoinen ederra
botz ezti honen borogatzea
Itzalak eragozten dü
iduzkiaren bero goriña
Adimenari gor gira
ühainetan badügu bihotza

c2

Ainez

Ezin nezake nik aitor
zertarako nizan heben hirekin
Jakinez boztario hau
izanen dela hain damügarri
Zelüko txori ejerrak
ez dira bizi gure lotsekin
Hegalez dabilta kantüz
pentsatü gabe biharamenari

c3

Petti

Gure familian hola bizitzen gira
denborari so
Hanitx delarik mündüan eskaza
sortzen beita handiago
Gogo honez jin bazira
zertarako zaizü dolütüko
Hel beharrari ez gira
edozein gisaz gü ezkapiko

c4

Ainez

Irakurtürrik ez dela agitzen
amodio irusik
Nola bizi behar dügü
bihotza kadenaz zerratürrik
Orai senditzen düdana
zentako nüke debekatürrik
Jakinez nik ez düdala
berriz biziko hainen ederrik

c5

Biek

Jinkoa zük har gitzatzü
orai zure beso eztieta
Ezi ez dükegüla
beste zorte bat den mündü hontan
Hanitz egoiten dirade
bihotza lehor basamortüan
Oren hau izan dadila
zohardi gure bizi osoan

KANTA III Misterioa

c1

Petti

Hau dela misterioa,
mundua baino zaharragoa.
Zorte bat, zeinen ederra,
boz ezti honen frogatzea.
Itzalak eragozten du
eguzkiaren bero gorria.
Adimenari gor gara,
uhinetan badugu bihotza.

c2

Ainez

Ezin nezake nik aitor
zertarako naizen hemen hirekin,
jakinez boztario hau
izanen dela hain damugarri.
Zeruko txori ederrak
ez dira bizi gure lotsekin.
Hegalez dabilta kantuz,
pentsatu gabe biharamunari.

c3

Petti

Gure familian hola bizitzen gara,
denborari so,
anitz delarik munduan eskasia
sortzen baita handiago.
Gogo onez jin bazara,
zertarako zaizu dolutuko?
Helbeharrari ez gara
edozein gisaz gu eskapatuko.

c4

Ainez

Irakurririk ez dela agitzen
amodio urosik,
nola bizi behar dugu
bihotza kateaz zerratürrik?
Orain sentitzen dudana
zerendako nuke debekaturik,
jakinez nik ez dudala
berriz biziko hain ederrik?

c5

Biek

Jainkoa, zuk har gaitzatzu
orain zure beso eztieta,
ezi ez dukegüla
beste zorte bat den mundu honetan.
Anitz egoten dira
bihotza lehor, basamortuan.
Oren hau izan dadila
zohardi gure bizi osoan.

frogatu: entzun

zertarako: zergatik
boztario: poz

lotsa: beldur

jin: etorri
zertarako: zergatik
dolutu: damutu
helbehar: patu

agitu: jazo, gertatu
uros: zoriontsu

zerendako: zergatik

ezi: ezen, zeren
dukegu: izango dugu

zohardi: garbi, distiratsu

7. JELKALDIA**Pika****42**

Martin-ek ikusi tiñe
 Oihanondoko hargian
 Petti eta Ainez gordaxka
 Bena xüüüüüüüüüüüüüüüü "ez düt erran"

Bele**43**

Odola gastatuko zion
 Etxeko Jaun handiari
 Ene fedea hon diñe
 Besteak beno haboro beti

Xoxo**44**

Buhame horren tupeta
 Ezdiñe horiek ahalkarik
 Pottiko ederra dün bena
 Ainez ez dün ber zurretik

Mosko**45**

Orai diñagü botüa
 Kasü gero errefera
 Nahi nüke bai ikusi
 Maddi "handiren" so beltza

Büztan**46**

Goazen orai elizalat
 Erratzaren igaraitera
 Bena xüüüüüüüüüüüüüüüü apezari deüsere
 Gur'artean barat dadila

7. JELKALDIA**Pika****42**

Martinek ikusi ditin
 Oihanondoko hargian
 Petti eta Ainez gordeka.
 Baina, xuuut! Ez dut erran.

Bele**43**

Odola gastatuko zaion
 etxeko jaun handiari.
 Ene fedea! On ditin
 besteak baino haboro beti.

Xoxo**44**

Buhame horren tupeta!
 Ez ditin horiek ahalkarik.
 Putiko ederra dun, baina
 Ainez ez dun ber zurretik.

Mosko**45**

Orain dinagu botea.
 Kasu, gero errefera.
 Nahi nuke, bai, ikusi
 Maddi handiaren so beltza.

Buztan**46**

Goazen orain elizarat,
 erratzaren igaratera.
 Baina, xuuut! Apezari, deus ere ez.
 Gure artean bara dadila.

hargia: harrera-leku, sarrera**haboro:** gehiago**tupeta:** aurpegi gogorra**ahalke:** lotsa**putiko:** mutiko**errefera:** errebote**igaran:** igaro**baratu:** geratu

8. JELKALDIA**Marti****47**

Egün hon Jaun t'Anderea
 Nahi züntükeet mintzatü
 Delikatüa dit gaüza
 Ez jakin nola aipatü

Mathurin**48**

Zer ote dük balentria
 Gezür bat ederra berriz
 Mintza hadi bena fite
 Merkatzale abian beniz

Marti**49**

Ikusi ditit biak atzo
 Zure bordako xehelan
 Petti Buamea eta Ainez
 Barat nadila heben berean

Mathurin**50**

Kasü eman ezak Marti
 Ez deat bietan erranen
 Etzakala hau ihori aipa
 Bestenaz zaik dolütüren

51

Orai dizügü afruntüa
 Aüzoan nahi günükeana
 Nola eraiki düzü alaba
 Buameer bada etxekara

52

Deit ezazü orai honara
 Zure alaba "saintüa"
 Xurit dezagün afera
 Jinkoak begira dezala

8. JELKALDIA**Marti****47**

Egun on, jaun eta anderea.
 Nahi zintuzteket mintzatu.
 Delikatua dut gauza.
 Ez jakin nola aipatu.

Mathurin**48**

Zer ote duk? Balentria?
 Gezur bat ederra berriz?
 Mintza hadi, baina fite,
 merkatari, abian bainaiz

Marti**49**

Ikusi ditit biak atzo
 zure bordako xeilan
 Petti buamea eta Ainez.
 Bara nadila hemen berean.

Mathurin**50**

Kasu eman ezak, Marti.
 Ez diat bitan erranen.
 Ez iezaioak hau inori aipa,
 bestenaz zaik dolutuko.

51

Orain dugu afruntua,
 auzoan nahi genukeena.
 Nola eraiki duzu alaba,
 buameei bada atxikia?

52

Dei ezazu orain hona
 zure alaba saindua.
 Zuri dezagun afera.
 Jainkoak begira dezala.

fite: arin**xeila:** ataka, kereta**baratu:** gelditu**dolutu:** damutu**afruntu:** laido, irain**eraiki:** hazi**zuritu:** argitu, konpondu

9. JELKALDIA

Mathurin**53**

Ainez errazüt egia
Bardin jakinen dūdana
Ikusten dūzūa gordaxka
Delako Petti Buhamea

Ainez**54**

Ez dizūgū minik egin
Bekatū dea mintzatzea
Herriko gazte batekin
Petti ez dea jendea

Mathurin**55**

Ixil zite haur trixtea
Gal'arazi deizū būrūa
Ez nizūn beste lotsarik
Debrūak eraman baleza

Maddi**56**

Ez zitila hola basa
Hortan baratūko beita
Ainez orai zoaza barnerat
T'ontsa zerra kanbera

Mathurin**57**

Behar dena eginen dit
Egūn berean jendarmerian
Buhame horren ausartzea
Ezdūzū egonen agerian

9. JELKALDIA

Mathurin**53**

Ainez, erradazu egia,
berdin jakinen dudana.
Ikusten duzua gordeka
delako Petti buhamea?

Ainez**54**

Ez dugu minik egin.
Bekatu dea mintzatzea
herriko gazte batekin?
Petti ez dea jendea?

Mathurin**55**

Isil zaitez, haur tristea.
Galarazi dizu burua.
Ez nuen beste lotsarik.
Debruak eraman baleza!

Maddi**56**

Ez zaitez hola basa,
horretan baratuko baita
Ainez, orain zoaz barnerat,
eta ontsa zerra ganbera.

Mathurin**57**

Behar dena eginen dut
egun berean jendarmerian.
Buhame horren ausartzea
ez da egonen agerian.

berdin: hala ere
duzua: al duzu

dea: al da

lotsa: beldur

basatu: haserretu
baratu: geratu
zerratu: itxi
ganbera: gela

10. JELKALDIA**Lefevre jendarnea****58**

Nor da Petti delakoa
 Honarat behar dü agertü
 Ürki bat xardekatürük
 Jüjeak nahi dü behatü

Legros jendarnea**59**

Ea mintza zitee klarki
 Badügü besterik egiteko
 Bestenaz fuera oro preso
 Ze afera guretako

Kiko**60**

Brastano gizen auherrak
 Beti erne gure kontra
 Pettiren salazaileak
 Merexi lüke nabala

Kikitza**61**

Terresta eramanik're
 Ez nün ez jinen züekin
 Demendren gaüza ahüla
 Arrunt ogenak oro guri

Petti**62**

Ogenik gabe banoa
 Jüjearen aitzineala
 Jakinez kondenatürük
 Nizatekeala "bistala"

63

Noiz date egün ederra
 Denentzat ber jüstizia
 Aberats al'pobre bati
 Lehenik errespetüa

Leborgne jendarnea**64**

Haügü honarat kokillota
 Ützirik orai filosofia
 Paueko presontegian
 Ariko hiz hire gisa

10. JELKALDIA**Lefevre jendarnea****58**

Nor da Petti delakoa?
 Honat behar du agertu.
 Urki bat sardekaturik
 jujeak nahi du behatu.

Legros jendarnea**59**

Ea, mintza zaitez klarki.
 Badugu besterik egiteko.
 Bestenaz, fuera, oro preso!
 Zer afera guretako!

Kiko**60**

Brastano gizen alferrak
 beti erne gure kontra.
 Pettiren salazaileak
 merezi luke nabala.

Kikitza**61**

Herresta eramanik ere,
 ez naun, ez, jinen zuekin.
 Den mendren gauza ahula,
 arrunt ogenak oro guri.

Petti**62**

Ogenik gabe banoa
 jujearen aitzinera,
 jakinez kondenaturik
 naizatekeela bistara.

63

Noiz dateke egun ederra
 denentzat ber justizia?
 Aberats ala pobre bati,
 lehenik errespetua

Leborgne jendarnea**64**

Haigu honat, kokillota,
 utzirik orain filosofia.
 Paueko presondegian
 ariko haiz hire gisa.

sardekatu: inausi**juje:** epaile**brastano (ijit.):** jendarme**nabala:** labana**den mendren gauza:**

gauzarik txikiena ere

arrunt: berehala**ogen:** erru**naizateke:** izango naiz**dateke:** izango da**haigu:** hator**kokillot:** doilor

KANTA IV **Ni, Petti Buame**

d1

Ni Petti Buame
Garindaineko seme nintzan
Jente honek ezarri naüe
presontegietan
Zer ogena eginik
izar bati so'eginik
Herra sortü liferentziatik

d2

Ni Petti Buame
Paueko presontegian
Egon behar düt orai
pena hanitx bihotzean
Ez düt egiten lorik
hain beniz etsitürik
Agortürik nigarrez hüstürik

d3

Kartzelako leihotik
gaüa delarik zohardi
Izar bat düt ikusten
zü zirela zait üdüri
Begiak zerratürik
entzüten düt hürüntik
Gure kanta Garindaineko herritik

d4

Heben kriminelekin
egün oroz bortizkeria
Biziaren legea
gizonen jaidüra beltza
Jaun hona emadazü
otoi zure grazia
Kabale bat ez nadila bilaka

KANTA IV **Ni, Petti Buame**

d1

Ni, Petti Buame,
Garindaineko seme nintzen.
Jende onek ezarri naute
presondegietan.
Zer ogen eginik
izar bati so eginik?
Herra sortu diferentziatik.

d2

Ni, Petti Buame;
Paueko presondegian
egon behar dut orain,
pena anitz bihotzean.
Ez dut egiten lorik
hain bainaiz etsiturik,
agoturik, negarrez husturik.

d3

Kartzelako leihotik
gaua delarik zohardi,
izar bat dut ikusten;
zu zarela zait iduri.
Begiak zerraturik
entzuten dut urrundik
gure kanta Garindaineko herritik.

d4

Hemen, kriminalekin,
egun oroz bortizkeria.
Biziaren legea,
gizonen jaidura beltza.
Jaun ona, emadazu,
otoi, zure grazia.
Kabala bat ez nadila bilaka.

herra: gorroto

jaidura: joera

kabala: abere

11. JELKALDIA**Petti
65**

Jaun Erretora zü heben
Ez zira lotsa erranen
Ezdüzü alta jornalean
Buhame bat itzalean

**Apeza
66**

Petti parkatü behar dük
Aküsazaile gaixtoer
Jinkoa züan eta hal'ere
Kristok parkatü dik dener

**Petti
67**

Aisa mintzo zira Jauna
Elea düzü aisea
Herra delarik bihotzean
Hürrün düzü ürrikia

68
Errozü Bidegorri-ri
Ez deiodala deüs' ebatsi
Ez ürkirik ez besterik
Hiltzea lüke merexi

**Apeza
69**
Süak süari ez dik honik
Urte bat joanen zaik fite
Nahi bahiz ontsa elki
Ahaztea hanitx hobe

70
Injüstizia bat delarik
Denak gütük ogenean
Begiak fite zerratürük
Gure lotsen aitzakian

**Petti
71**
Esker mila erretora
Amaitü düzü bisita
Errozü otoi Ainezeri
Desolatürük nizala

11. JELKALDIA

**Petti
65**
Jaun erretorea, zu hemen
ez zara lotsa erranen.
Ez duzu, alta, jornalean
buhame bat itzalean.

**Apeza
66**
Petti, barkatu behar diek
akusatzaile gaiztoei.
Jainkoa zuan, eta, hala ere,
Kristok barkatu ziek denei.

**Petti
67**
Aise mintzo zara, jauna.
Elea duzu aiseena.
Herra delarik bihotzean,
urrun duzu urrikia.

68
Errozu Bidegorriri
ez diodala deus ebatsi;
ez urkirik, ez besterik.
Hiltzea luke merezi.

**Apeza
69**
Suak suari ez dik onik.
Urte bat joanen zaik fite.
Nahi bahaiz ontsa ilki,
ahaztea anitz hobe.

70
Injustizia bat delarik,
denak gaituk ogenean,
begiak fite zerraturik
gure lotsen aitzakian.

**Petti
71**
Esker mila, erretorea.
Amaitu duzu bisita
Errozu, otoi, Ainezeri
desolaturik naizala.

lotsa: beldur
erran: esamensa
alta: hala ere

aise: erraz

herra: gorroto
urriki: erruki

fite: arin
ilki: irten

ogen: erru
zerratu: itxi
lotsa: beldur

KANTA V Bakartasuna

e1

Ez nakien nor zen Andere handia
Ez nūalakoz entzūn haren botz samina
Erran diot zoaza hortik
ez girate lagūn
Gaū beltzean gela hontan
etzen egon hūrrūn

e2

Behin ikusirik Paueko ferietan
Hartz beltz bat ederra lepotik estekan
Zer malūrre errege bat
libertaterik gabe
Egūn hartan pentsatū nūan
nor jente ta nor kabale

e3

Hots berriz jin nadin botz karmin hartara
Gaūaz mintzo dena kahaka bezala
Etsitūrik triste-zian
erran nion beraz sar zite
Hatsarrean biak ginen
etsai' ta herabe

e4

Denborarekin ikasi dūt errespetatzen
Zertarako ez aitor gero desiratzen
Hainbeste gaū eta egūn
ixil algarri so
Bakartazūna geroztik
adixkide dūt betiko

KANTA V Bakartasuna

e1

Ez nekien nor zen andere handia,
ez nuelakoz entzun haren boz samina.
Erran diot «zoaza hortik;
ez gara lagun».
Gau beltzean, gela honetan,
ez zen egon urrun.

e2

Behin ikusirik Paueko ferietan
hartz beltz bat ederra lepotik estekan.
Zer malurra errege bat
libertaterik gabe!
Egun hartan pentsatu nuen
nor jende eta nor kabala.

e3

Hots berriz jin nadin boz karmin hartara,
gauaz mintzo dena, kahaka bezala.
Etsiturik, triste-zian,
erran nion «beraz, sar zaitez».
Hatsarrean biak ginen
etsai eta herabe.

e4

Denborarekin ikasi dut errespetatzen.
Zertarako ez aitor? Gero, desiratzen.
Hainbeste gau eta egun
isil elkarri so.
Bakartasuna geroztik
adiskide dut betiko.

estekan: loturik
malur: atsekabe

kabala: abere

jin: etorri
karmin: garratz
kahaka: mozolo

hatsarre: hasiera
herabe izan: lotsatu

12. JELKALDIA

Garindaineko festan

Mathurin**72**

Debrü Buhame urdeak
 Beti trebes aitzinean
 Ohilt ditzagün hebentik
 Egon ditian beren leküan

Heguy**73**

Zoazte hortik fit'etxerat
 Debrü Buhame zantarrak
 Eliza besta egünean
 Ez beit zidee honki jinak

Kiko**74**

Hüilant hadi fida bahiz
 Mütürreko baten biltzea
 Ez diat aspaldian tiratü
 Jauntto bati südürreala

Bordanave**75**

Egonen gira lüzaz heben
 Buhame tzar horier beha
 Makila honen gordina
 Txesten diñe "Ala Jinkuna"

12. JELKALDIA**Mathurin****72**

Deabru buhame urdeak,
 beti trebes aitzinean.
 Ohil ditzagun hemendik,
 egon daitezen beren lekuan.

Heguy**73**

Zoazte hortik fite etxerat,
 deabru buhame zantarrak,
 eliza-besta egunean
 ez baitzarete ongi jinak.

Kiko**74**

Hullan hadi, fida bahaiz,
 muturreko baten biltzera.
 Ez zioat aspaldian tiratu
 jauntto bati sudurrera.

Bordanave**75**

Egonen gara luzaz hemen
 buhame tzar horiei beha.
 Makila honen gordina
 dastatzen ditén, ala jainkoa!

trebes: zeharka
ohildu: egotzi, bota

fite: arin**jin:** etorri**hullandu:** hurbildu**tzar:** txar, gaizto

13. JELKALDIA

Larrazkena

Hartz**76**

Gaztain mardotsak hiroturik
Urđiñarbek' ezkaratzetan
Har xuria intxaurtzetan
Zonbat gezür herri hontan

Kikitza**77**

Oilo bat galtzen badiñe
Estonatüko 'tün gero
T'hortxe bat karrakan... prura prura
Hartzen diñat aihariteko

Niakosa**78**

Garindainen badiñat xenda
Oilategi batean egina
Ez deizüet erranen non
Enea beita xokoa

Kiko**79**

Garindaintarrer diñat herra
Petti gütarik hoberena
Nolaxet desegin ez diñe
Gezürra haien liturgia

Kikitza**80**

Non hiz orai gure haurra
Ogenik gabe eramana
Mathurin pakatüko dün
Goiz edo berant gaixtakeria

Elias**81**

Pettirik badik bertütea
Hik eta nik ez düguna
Non izanik ere orai
Ükenen dik hoberena

13. JELKALDIA**Hartz****76**

Gaztain mardotsak hiroturik
Urđiñarbeko ezkaratzetan.
Har zuria intxaurtzetan.
Zenbat gezur herri honetan!

Kikitza**77**

Oilo bat galtzen badute,
estonatu ditun gero.
Eta hortxe bat karrakan. Purra-purra!
Hartzen dinat afaltzeko

Niakosa**78**

Garindainen badinat xenda
oilategi batean egina.
Ez dizuet erranen non,
enea baita zokoa

Kiko**79**

Garindaintarrei zienat herra.
Petti, gutarik hoberena.
Nolaxe desegin ez dute?
Gezurra haien liturgia.

Kikitza**80**

Non haiz orain, gure haurra,
ogenik gabe eramana?
Mathurin, pagatuko dun
goiz edo berant gaixtakeria.

Elias**81**

Pettirik badik bertutea,
hik eta nik ez duguna:
non izanik ere orain,
ukanen dik hoberena.

larrazken: udazken**mardots:** morkots**hirotu:** usteldu**intxaurtze:** intxaurrondo**estonatu:** harritu**karrakan:** lasterka**xenda:** bide**herra:** gorroto**nolaxe:** nolatan**ogen:** erru**berant:** berandu

non izanik ere:
dagoen lekuan dagoela

14. JELKALDIA

Ainez hilzorian

Ainez**82**

Korpitzean sükar mina
 Bihotzean etsidüra
 Senditzen dit horra dela
 Ene ganat txerkaria

83

Parkamentü galtatzen dit
 Jinkoari eta züer
 Egin badeizüet ogen
 Beste norbaiti halaber

84

Arrunt nüzüe aküsatü
 Ta zer bekatü eginik
 Gazte bati mintzatü niz
 Hainbeste herra ondotik

Maddi**85**

Ainez alaba gaixoa
 Gük deizügü orai parka
 Ürgüillüaren begiek
 Gal arazirik sentsü hona

86

Malürrak bere latzean
 Beti eskolatzen gütü
 Ondotik gira ohartzen
 Dolü bezain ordü banü

Aingeruak**87**

Ainez llabür izan düzü
 Lür hontan zure bizia
 Jaunak badaki zergatik
 Gük heben eztakigüna

88

Ez zitila hortaz lotsa
 Mündü hau etzen zurea
 Beste bat hobeagoa
 Zeizü orai hitz emana

14. JELKALDIA**Ainez****82**

Gorputzean sukar-mina,
 bihotzean etsidura.
 Sentitzen dut horra dela
 eneganat xerkaria.

83

Barkamendu galdatzen dizuet
 Jainkoari eta zuei,
 egin badizuet ogen.
 Beste norbaiti halaber.

84

Arrunt nauzue akusatu.
 Eta zer bekatu eginik?
 Gazte bati mintzatu natzaio.
 Hainbeste herra ondotik?

Maddi**85**

Ainez alaba gaixoa,
 guk dizugu orain barka,
 urguiluaren begiek
 galarazirik zentzu ona.

86

Malurak bere latzean
 beti eskolatzen gaitu.
 Ondotik gara ohartzen.
 Dolu bezain ordu banu!

Aingeruak**87**

Ainez, llabur izan duzu
 Lur honetan zure bizia.
 Jaunak badaki zergatik,
 guk hemen ez dakiguna.

88

Ez zaitezela, hortaz, lotsa.
 Mundu hau ez zen zurea.
 Beste bat hobeagoa
 zaizu orain hitz emana.

horra da: dator
xekari: bilatzaile

galdatau: eskatu**ogen:** gauza txar, kalte**arrunt:** berehala**herra:** gorroto**dizugu:** esaten dizugu**malur:** zorigaitz**lotsatu:** beldurtu

KANTA VI Argiari

f1

O Jaun hona bihotzen argia
Ez nitan ützt gauari lekua
Münduko bideetan ülünak jo banü
Hantik ere zük naüzü maitatü

f2

Herratürrik galdürrik bidea
Ez nakien non zen ütürria
Hainbeste herotsekin zutarik hain hürrün
Orai berriz hor zira ene lagün

f3

Sineste bat ez girela galdüko
Esperantzan betiko argian
Hitz eman zelüan betiko bizian
Maitarzünean zure erreinuan

KANTA VI Argiari

f1

O, Jaun ona, bihotzen argia,
ez nitan utz gauari lekua.
Munduko bideetan ilunak jo banau,
haatik ere, zuk nauzu maitatu.

f2

Herraturik, galdurik bidea,
ez nekien non zen iturria.
Hainbeste herotsekin zutarik hain urrun.
Orain, berriz, hor zara, ene lagun.

f3

Sineste bat: ez garela galduko.
Esperantzan betiko argian,
hitz eman zeruan betiko bizian,
maitasunean zure erreinuan.

herratu: bidea galdu

herots: zarata
zutarik: zugandik

15. JELKALDIA**Bele****89**

Ainez holako primüa
Nola zaikün gazterik joan
Sosa ez beita denen jaun
Mathurin-ek uste züan

Xoxo**90**

Kasü Buhame tzar horier
Ez düenez zorte bat eman
Apo belatza entzün diñat
Karrankaz Oihanondoan

Pika**91**

Gatü beltz bat basatüa
Ohiltü diñat goiz hontan
Nahi ziñan etxen sartü
Ezkapi dün azkenean

Xorrotx**92**

Jaunttoek badiñe sabel
Kontsolatüren 'tün fite
Moltsa beterik direno
Arrastakuak ontsa tiñe

Mosko**93**

Oilategiko xehela
Goiz oroz diñat zabalik
Bihar goizean goaitean
Hantxe nükek iratzarririk

15. JELKALDIA**Bele****89**

Ainez horrelako prima
nola zaigun gazterik joan!
Sosa ez baita denen jaun,
Mathurinek uste zuan.

Xoxo**90**

Kasu buhame tzar horiei,
ez diotenetz zorte bat eman.
Apo-belatza entzun dinat
karrankaz Oihanondoan.

Pika**91**

Katu beltz bat basatua
ohildu dinat goiz honetan.
Nahi zunan etxen sartu.
Eskapatu din azkenean.

Xorrotx**92**

Jaunttoek baditen sabel;
kontsolatuko ditun fite.
Moltsak beterik direno,
arrastakoak ontsa ditizten.

Mosko**93**

Oilategiko xeila
goiz oroz dinat zabalik.
Bihar goizean, goaitean
hantxe naukek iratzarririk.

prima: alaba nagusia**sos:** diru**tzar:** txar, gaizto**ez diotenetz:** ez ote dioten**zorte:** begizko**ohildu:** uxatu**moltsan:** diru-zorro**arrastako:** gainerako**xeila:** ataka**goaitean:** zelatan**naukek:** izango nauk

16. JELKALDIA

1847an, Petti libre Baionan

Osaba**94**

Petti hain nük zorientsu
Hire berriz ikusteaz
Xiberoan erranen diat
Ontsa hizala maneraz

Petti**95**

Egün beltzak iraganik
Paueko presontegian
Ogenik gabe etsitürik
Hobeki nüzü Baionan

96

Jakin dit Ainez hil dela
Zer pena düdan Osaba
Lili eder bat sasian
Tona gabeko izarra

97

Zonbat anker den jentea
Ürgüilü jankin handia
Mathurinek edan beza
Berak bete düan kalitza

Rita**98**

Petti bihotza dük handi
Itsas zabala üdüri
Egin ezok hal' ere beti
Maitarzünari batzarri

16. JELKALDIA**Osaba****94**

Petti, hain nauk zorientsu
hire berriz ikusteaz.
Xiberoan erranen diat
ontsa haizela maneraz.

Petti**95**

Egun beltzak iraganik
Paueko presondegian.
Ogenik gabe, etsiturik.
Hobeki nauzu Baionan.

96

Jakin dut Ainez hil dela.
Zer pena dudan, osaba!
Lili eder bat sasian,
tona gabeko izarra.

97

Zenbat anker den jendea,
urguilu-jankin handia!
Mathurinek edan beza
berak bete duen kalitza.

Rita**98**

Petti, bihotza duk handi,
itsaso zabala iduri.
Egin iezaio, hala ere, beti
maitasunari batzarri.

ogen: erru
etsitu: etsi, esperantza galdu

tona: orban**urguilu-jankin:** harroputz**batzarri:** abegi

17. JELKALDIA

Petti ostatuan

Agosti Xaho**99**

Agur züer adixkideak
Laborariak ta langileak
Hazten düzü' erresuma
Hal're mespretxü erregeak

100

Entzün ezazüe kanpoan
Jentea berriz murrungan
Gaüzak kario haboro legar
Kasü laister karriketan

101

Eüskaldünen zerbütixari
Jarriko niz ni gaur goiti
Hanitx haboro errespetü
Herriak beitu merezi

102

Lehen lehenik eskola
Dohainik eta denentzat
Eüskaraz gure hizkuntza
Egoki beita horrentzat

Petti**103**

Sekulan ez beitu entzün
Zü bezala norbait mintzo
Ni deitzen nüzü Pettiri
Orai zure zerbütüko

Agosti Xaho**104**

Üsü kurri nük bideetan
Karrozain bat behar nitek
Ofizioa ontsa bazeik
Orai arrunt hire dükek

17. JELKALDIA**Agosti Xaho****99**

Agur zuei, adiskideak,
laborariak eta langileak.
Hazten duzue erresuma.
Hala ere, mespretxu erregeak

100

Entzun ezazue kanpoan
jendea berriz murrungan.
Gauzak kario, haboro legar.
Kasu, laster karriketan.

101

Euskaldunen zerbitzari
jarriko naiz ni gaur goiti,
anitz haboro errespetu
herriak baitu merezi.

102

Lehen-lehenik eskola
dohainik eta denentzat.
Euskaraz, gure hizkuntza
egoki baita horrentzat.

Petti**103**

Sekulan ez baitut entzun
zu bezala norbait mintzo.
Ni deitzen nauzu Pettiri,
orain zure zerbitzuko

Agosti Xaho**104**

Usu korritzen nauk bideetan.
Karrozain bat behar nitek.
Ofizioa ontsa bazaik,
orain arrunt hire dukek.

murrunga: marmar**kario:** garesti**haboro:** gehiago**legar:** zerga**gaur goiti:** gaurtik aurrera**usu:** maiz**arrunt:** berehala**dukek:** izango duk

18. JELKALDIA

1848ko iraultzan, Baionan

Agosti Xaho**105**

Gibel zitee jaunkillotak
 Ez dügü nabi aharra
 Ütz ezazüe igaraitera
 Errepublika berria

Tucourt-Lajoie**106**

Xaho zer idealista
 Beti ber ilüسیونetan
 Errege hau joan baiko
 Beste bat dükek goaitean

107

Errepublika hitz ederra
 Libertatea bezala
 Otsoa otso datino
 Gizona dükek gizona

Agosti Xaho**108**

Sobera ontsa hazirik
 Galdü düzüe gütizia
 Gük ez beütügü besterik
 Ützi güzüe esperantza

18. JELKALDIA**Agosti Xaho****105**

Gibela zaitezte, jaunkillotak.
 Ez dugu nahi aharra.
 Utz ezazue igaratera
 Errepublika berria.

Tucourt-Lajoie**106**

Xaho, zer idealista!
 Beti ber ilusioetan.
 Errege hau joan baiko,
 beste bat dukek goaitean.

107

'Errepublika', hitz ederra,
 'libertatea' bezala.
 Otsoa otso datekeeno,
 gizona dukek gizona.

Agosti Xaho**108**

Sobera ontsa hazirik,
 galdu duzue gutizia.
 Guk ez baitugu besterik,
 Utz iezaguzue esperantza.

gibelatu: atzera egin
jaunkillot: jauntxo
aharra: liskar
igaran: igaro

baiko: baino ez
dukek: izango duk
goaitean: zain

datekeeno: den bitartean**gutizia:** nahi, gogo

2. SATANERIA**Oker****109**

Odol gabeko iraültza
 Baionan nolaz dük ützi
 Laister gütük xomajea
 Nausia oihü eta jauzi

Kinper**110**

Xaho dük ilüsiometan
 Igaranen dela bozketan
 Ütziko diat zoritzea
 Janen ditak ahurrean

Oker**111**

Nik Xüberoako artzainak
 Sü gorri ditiat koleran
 Laster dütüzkek pettarrean
 Makil zorrotzak esküan

Kinper**112**

Heben lana kausitürük
 Joanen gütük Parisera
 Napoleon ttipiaren
 Mustatxa lüzatü beita

2. SATANERIA**Oker****109**

Odol gabeko iraultza
 Baionan nolaz duk utzi?
 Laster gaituk langabezian,
 nagusia oihu eta jauzi

Kinper**110**

Xaho duk ilusioetan,
 igaranen dela bozketan.
 Utziko diat zoritzea.
 Janen zidak ahurrean

Oker**111**

Nik Xiberoko artzainak
 su gorri ditiat, koleran.
 Laster dituzkek Pettarrean
 makil zorrotzak eskuan

Kinper**112**

Hemen lana kausiturük,
 joanen gaituk Parisera,
 Napoleon ttipiaren
 mustatxa luzatu baita.

igaran: igaro
zoritu: heldu, umotu
ahur: esku-ahur

dituzkek: izango dituk

kausitu: arrakastaz burutu

mustatxa: bibote

19. JELKALDIA**Agosti Xaho****113**

Agur Ahüzko artzainak
 Jakin düt kexü zindeela
 Egün jin niz nihaur honara
 Züen griñen behatzea

Gexia**114**

Aspalditik bortüetan
 Libro gintitzün pakadak
 Gure ardi saldoekin
 Behar dititzügu eremuak

Kaiet**115**

Lege bat omen prest düzü
 Bortüaren xedatzeko
 Guretzat ezin bizia
 Ez dizügu honartuko

Pette**116**

Beti nonbaiko jentea
 Heben gure manazaile
 Pariseko jaunkillotek
 Artzainetaz zer dakite

Agosti Xaho**117**

Defendatüko düt beti
 Züen üsantxa zaharra
 Nork züek beno hobeki
 Ezagützen dü bortüa

19. JELKALDIA**Agosti Xaho****113**

Agur, Ahuzkiko artzainak.
 Jakin dut kexu zinetela.
 Egun jin naiz nihaur hona,
 zuen grinena behatzera.

Gexia**114**

Aspalditik, bortuetan
 libre genituen bakadak.
 Gure ardi-saldoekin
 behar ditugu eremuak.

Kaiet**115**

Lege bat omen prest da
 bortuaren xedatzeko.
 Guretzat, ezin bizia.
 Ez dugu onartuko.

Pette**116**

Beti nonbaiteko jentea
 hemen gure manatzaile.
 Pariseko jaunkillotek
 artzainez zer dakite!

Agosti Xaho**117**

Defendatuko dut beti
 zuen usantza zaharra.
 Nork zuek baino hobeki
 ezagutzen du bortua?

jin: etorri
grina: ardura, kezka
behatu: entzun

bortu: mendi
bakada: larre
saldo: talde

xedatu: mugarritu

manatzaile: agintzaile
jaunkillot: jauntxo

bortu: mendi

KANTA VII

Artzainek kanta

g1

Bi artalde xuri badoatz xendatik
Lau artzain ixilik goizetik ondotik
Hürrüntü etxea hürrüntü herria
Laister hor ageri etxola ta borda

g2

Pette edo Kaiet Marti eta Gexia
Gü gira artzainak aita zen bezala
Haitürik ez bada har'zak ontsa jina
Hartzen dügü bardin ekia ta ebia

g3

Lege bat kanpoti laister jinen dela
Bortüa ez beita omen artzainena
Ordüan kasü gerla artzainen kexüa
Xaho-rek ez badü xüxentzen afera

g4

Ahüzkiko artzaina langile ixila
Goizik abiatü zaikü ardien biltzera
Nork ezagützen dü bortüko arima
Nork nahi dü hürrüntik ezarri legea

KANTA VII

Artzainek kanta

g1

Bi artalde zuri badoaz xendatik.
Lau artzain isilik goizetik ondotik.
Urrundu etxea, urrundu herria.
Laster hor ageri etxola eta borda.

g2

Pette edo Kaiet, Marti eta Gexia,
gu gara artzainak, aita zen bezala.
Hauturik ez bada, har ezak ontsajina.
Hartzen dugu berdin ekia eta euria.

g3

Lege bat kanpotik laster jinen dela,
bortua ez baita omen artzainena.
Orduan, kasu! Gerla artzainen kexua,
Xahok ez badu zuzentzen afera

g4

Ahuzkiko artzaina langile isila.
Goizik abiatu zaigu ardien biltzera.
Nork ezagutzen du bortuko arima?
Nork nahi du urrundik ezarri legea?

xenda: bide

ontsajin: ongietorri

20. JELKALDIA

1852a

Agosti Xaho**118**

Pettiri ene lagün hona
Galdü ziztadak indarrak
Istripü tzar hartaz geroz
Handitü ere nekeziak

119

Ützi behar ditiat jauziak
Bakoitzak diagü üngürüño bat
Ihork ez dik ezkapürük
Ber legea dük denentzat

120

Gazte hiz eta balios
Aitzinean dük bizia
Abil mündü berrietara
Han dükek zorte hobia

121

Hebentxe mila libera
Gogo honez hiretako
Abil orai lotsarik gabe
Mündüa zaik zabaltüko

122

Xüberotar hanitx badük
Buenos Aires-eko hirian
Mintza hakie ene partez
Ez hiz egonen kanpoan

Petti**123**

Eskerrik hanitx Musde Xaho
Hain ontsa nüzü tratatü
Jakinik ere nor nintzan
Beti nüz' errespetatü

124

Musde Xaho zü zirade
Eüskaldün bat famatüa
Zü ziradila medio
Jeikiko düzü Eüskaldüna

20. JELKALDIA**Agosti Xaho****118**

Pettiri, ene lagun ona,
galdu zaizkidak indarrak.
Istripu tzar hartaz geroz,
handitu ere nekeziak.

tzar: gaizto

119

Utzi behar ditiat jauziak.
Bakoitzak diagu inguruño bat.
Inork ez dik eskapaturik.
Ber legea duk denentzat.

120

Gazte haiz, eta balios.
Aitzinean duk bizia.
Abil mundu berrietara.
Han dukek zorte hobia.

dukek: izango duk

121

Hementxe mila libera,
gogo onez hiretako.
Habil orain lotsarik gabe.
Mundua zaik zabalduko.

lotsa: beldur

122

Xiberotar anitz baduk
Buenos Aireseko hirian.
Mintza hakie ene partez.
Ez haiz egonen kanpoan.

Petti**123**

Eskerrik anitz, musde Xaho.
Hain ontsa nauzu tratatu.
Jakinik ere nor nintzen,
Beti nauzu errespetatu.

musde: jaun

124

Musde Xaho, zu zara
euskaldun bat famatua.
Zu zarela medio,
jaikiko da euskalduna.

KANTA VIII

Agosti Xahori

h1

Atharratzeko seme adimen zorrotza
Gora altxatü düzü euskaldün izarra
Pariseko ürretan errezebitüa
Bena etzen saltzeko euskaldün semea

h2

Jente ttipien alde jarri zira beti
Haler'e entzün düzü etzinela kiristi
Jinkoak badakike gük beno hobeki
Nola zinen hareki 'ta ebanjeliueki

Errepika

h3

Agosti Xaho herritarrek zuri
Gorazarre eta uhure beti

h4

Nor date axolatzen ele honak salbü
Popülüko jenteaz nahiz hurak goratü
Dener eskola eman eta errespetü
El'ederrez aparte obrak akunplitü

h5

Nola ez aipa ere euskaldün süharra
Eüskarari diozün pasione handia
Hanitzek beno lehen zük konprenitüa
Gure hizkuntza dela euskaldüntzen gütüana

KANTA VIII

Agosti Xahori

h1

Atharratzeko seme adimen-zorrotza,
gora altxatu duzu euskaldun izarra.
Pariseko urreetan errezebitua,
baina ez zen saltzeko euskaldun semea.

h2

Jende ttipien alde jarri zara beti.
Hala ere, entzun da ez zinela kiristi.
Jainkoak badakike guk baino hobeki
nola zinen harekin eta ebanjelioekin.

Errepika

h3

Agosti Xaho, herritarrek zuri
gorazarre eta ohore beti.

h4

Nor dateke axolatzen, ele onak salbu,
populuko jendeaz, nahiz haiek goratu?
Denei eskola eman, eta errespetu.
Ele ederrez aparte, obrak konplitu.

h5

Nola ez aipa ere, euskaldun suharra,
euskarari diozun pasio handia?
Anitzek baino lehen zuk konprenitua
gure hizkuntza dela euskalduntzen gaituena.

kiristi: kristau
dakike: jakingo du

ele: hitz
nahiz: nahirik, nahian

konprenitu: ulertu

21. JELKALDIA

Petti Buenos Airesen

Gilen**125**

Amaia Gipuzkoarra
 Mikel aldiz Nafartarra
 Petti hi Xüberotarra
 Eta nihaur Bizkaitarra

126

Sor leküa ützi dügü
 Beharrak eraman gütü
 Erresuma eder hontan
 Bizi gitean esküz eskü

Amaia**127**

Heben Eüskaldün perestüek
 Eginen dütüe aferak
 Eta gero lagüntüko
 Etxen egon aurrideak

Mikel**128**

Baztango gure mendian
 Gaixo etxondo ttipian
 Hamar ginen familian
 Ikasi dügü lanean

Petti**129**

Lür berritik azi berri
 Heben oro bardin gira
 Han nintzan trixten errege
 Heben pertsona osoa

Jose Mari**130**

Petti badük botz ederra
 Balia ezak dohaina
 Jenteer eman zoriona
 Biziko hiz jaun ederra

Amaia**131**

Petti har ezak txapel hau
 Hunki jinaren opari
 Eskeiniko dük aldian
 Best' Eüskaldün anai bati

21. JELKALDIA**Gilen****125**

Amaia, gipuzkoarra.
 Mikel, aldiz, nafarra.
 Petti, hi, xiberotarra.
 Eta nihaur, bizkaitarra.

126

Sorlekua utzi dugu.
 Beharrak eraman gaitu.
 Erresuma eder honetan
 bizi gaitezen eskuz esku.

Amaia**127**

Hemen, euskaldun prestuek
 eginen dituzte aferak.
 Eta gero lagunduko
 etxen egon haurrideak.

Mikel**128**

Baztango gure mendian
 gaixo etxondo ttipian,
 hamar ginen familian.
 Ikasi dugu lanean.

Petti**129**

Lur berritik, hazi berri.
 Hemen, oro berdin gara.
 Han, nintzen tristen errege.
 Hemen, pertsona osoa.

Jose Mari**130**

Petti, baduk boz ederra.
 Balia ezak dohaina.
 Jendeei eman zoriona.
 Biziko haiz jaun ederra.

Amaia**131**

Petti, har ezak txapel hau
 ongijinaren opari.
 Eskainiko diok aldian
 beste euskaldun anaia bati.

etxen: etxean

etxondo: sortetxe

ongijin: ongietorri

KANTA IX Itsaso zabaletan

i1

Zazpi egün haboro agian
Bagoatzala itsasoan
Isiltasuna gure artean
Soa dūgūnaz lūhartzean

i2

Norat hua ontsi xuria
Oihalak aizeari para
Zer dateke han gure bizia
Miseri ala hoberena

i3

Hiru anaie hainen tristerik
Horra zaizküla Xūberotik
Edanen dūgū "agua ardentik"
Kantatūko aide ederrik

i4

Agert hadi lūrralde ederra
Eūskaldūnentzat batzarria
Hitan beitūgū gur'esperantza
Gaztetasūna ta bihotza

i5

Adio beraz izar ederra
Ene bihotzaren auhena
Jinen ziküzū hitzordū hura
Amodioaren orena

KANTA IX Itsaso zabaletan

i1

Zazpi egun haboro agian
bagoazela itsasoan.
Isiltasuna gure artean,
soa dugunez luhartzean.

i2

Norat hoa, ontzi zuria,
oihalak haizeari para?
Zer dateke han gure bizia,
miseria ala hoberena?

i3

Hiru anaia hain tristerik
horra zaizkigula Xiberotik,
edanen dugu aguardientik.
Kantatuko aire ederrik.

i4

Ager hadi, lurralde ederra,
euskaldunentzat batzarria,
hitan baitugu gure esperantza,
gaztetasuna eta bihotza.

i5

Adio, beraz, izar ederra,
ene bihotzaren auhena.
Jinen zaigu hitzordu hura,
amodioaren orena.

haboro: gehiago

luhartz: eskorpioi

paratu: jarri

dateke: izango da

horra izan: etorri

aire: doinu

batzarri: abegi

auhen: aiene

oren: ordu

22. JELKALDIA

Pazkoa Urdiñarben eta Muskildin

Elias**132**

Heben Garaibi xokoan
 Akelarreko beiletan
 Ikusi tiñat mil'aker
 Nola kantan bi botzetan

Kiko**133**

Afrikako oihanetan
 Bi metrako tximinoak
 Ikusi tiñat nik dantzan
 Beren emeak besoan

Kikitza**134**

Eta nik bi arraultzeki
 Hamarrentako muleta
 Zaflatu diñat zartagiñan
 Beitzen hogeien asea

Niakosa**135**

Otso ama batek bi errege
 Hazi zütuan Erruman
 Gure Pettirik bazakien
 Ikasirik hiztegian

Hartz**136**

Gaixo Petti non hiz orai
 Agian nonbait desterruan
 Ederra duka bizia
 To... ardoa fini xahakoan

Osaba**137**

Pausa gitean orai heben
 Arbaiako oihanari so
 Goza dezagün egüna
 Biharamüna jin artino

22. JELKALDIA**Elias****132**

Hemen, Garaibi zokoan,
 akelarreko beiletan,
 ikusi ditinat mila aker
 nola kantan bi bozetan.

Kiko**133**

Afrikako oihanetan
 bi metroko tximinoak
 ikusi ditinat nik dantzan,
 beren emeak besoan.

Kikitza**134**

Eta nik bi arrautzarekin,
 hamarrendako moleta
 zaflatu dinat zartaginan,
 baitzen hogeiren asea.

Niakosa**135**

Otso ama batek bi errege
 hazi zituan Erroman.
 Gure Pettirik bazekian,
 ikasirik hiztegian.

Hartz**136**

Gaixo Petti, non haiz orain?
 Agian, nonbait, desterruan.
 Ederra duka bizia?
 To, ardoa fini xahakoan.

Osaba**137**

Pausa gaitezen orain hemen,
 Arbaiako oihanari so.
 Goza dezagun eguna,
 biharamuna jin artio

beila: gaupasa

moleta: tortilla
zaflatu: zanpatu

duka: al duk
finitu: amaitu
xahako: xahato

artio: arte

KANTA X**Kara kara pikari****j1**

Kara kara pikari
Txiruli txoriari
Kikok badazki ontsa
Txorien hüxtuak

j2

Kükürükü oilarra
Oiloak kokoda
Ritak badazki ontsa
Barrioko oihüak

j3

Berde berde bedatsa
Gorri gorri üda
Üdazkena ürrezko
Beltzatzen negüko

j4

Bat biga hiru laur
Zer janen dügü gaur
Bost sei zazpi eta zortzi
Ogi eta intzaur
Xinkor eta bihi
Eta ardo berri

KANTA X**Kara kara pikari****j1**

Kara kara pikari,
txiruli txoriari.
Kikok badakizki ontsa
txorien hixtuak.

j2

Kukurruku oilarra,
oiloak kokoda.
Ritak badakizki ontsa
barrioko oihuak.

j3

Berde-berde bedatsea.
Gorri-gorri uda.
Udazkena, urrezko.
Belzten neguko.

j4

Bat, biga, hiru, laur,
zer janen dugu gaur?
Bost, sei, zazpi, eta zortzi,
ogi eta intxaur,
txingar eta bihi,
eta ardo berri.

hixtu: txistu**barrio:** oilategi**bedatse:** udaberri

AINGERUAK**138**

Ürröntüko zaikü bertan
Petti Buhamet trageria
Bakearen sortzaileak
Aingürüak izan gira

139

Lehen orai eta gero
Mündüan nahaskeria
Satanek düe hortako
Maleziaren jeniua

140

Izan ontsa adiskideak
Pastoraltzaile maiteak
Apezareki batean
Deitziegü bendizioneak

AINGERUAK**138**

Urrenduko zaigu bertan
Petti Buhamet trageria.
Bakearen sortzaileak
aingeruak izan gara.

139

Lehen, orain eta gero,
munduan nahaskeria.
Satanek dute, hortako,
maleziaren jeniua.

140

Izan ontsa, adiskideak,
pastoralzaile maiteak.
Apezarekin batean,
dizkizuegu bendizioak.

urrendu: amaitu

bertan: berehala

trageria: pastoral

dizkizuegu:

ematen dizkizuegu

AZKEN PEREDIKUA**141**

Hona beraz adiskideak
 Ûrrentzen dela pastoral
 Eman dügü bihotz honez
 Ezarriz gure hoberena

142

Eüskal Herriko Buhamer
 Egün dügü gogamena
 Mesprexatü badütügü
 Galtatzen deieg'urrikala

143

Nahiz Eüskal Herrietan
 Bizi ziren sosegüan
 Lan sobera egin gabe
 Güti batez ben'aterbüan

144

Petti Buhamer-ren bizia
 Ez bad'ere egiazkoa
 Alegiak agertzen dü
 Egiaren sentipena

145

Nork dü aise süportatzen
 Beste gisaz bizi dena
 Egün batez liferentziak
 Sortzen dü bere ogena

146

Ikasten dügü eskolan
 Gizona dela gizona
 Bizi denak ikusten dü
 Ez dela hain nabaria

147

Gaur ere balizateke
 Gaiza horietaz errateko
 Gobernuak ez beitira lotsa
 Jente tristen ehizatzeke

148

Bego hortan egünkoa
 Ez gira filosofoak
 Bena hortara güt'ekarri
 Aurtenko gure süjetak

149

Ez zitela arrunt joan
 Gora beit'orano ekia
 Eta zerbait hartü gabe
 Ez ützi gure herria

AZKEN PEREDIKUA**141**

Hona, beraz, adiskideak,
 urrentzen dela pastoral.
 Eman dugu bihotz onez,
 ezarriz gure hoberena

142

Euskal Herriko buameei
 egun dugu gogamena.
 Mesprexatu baditugu
 galdatzen diegu urrikala.

143

Nahiz euskal herrietan
 bizi ziren soseguan,
 lan sobera egin gabe
 gutxi batez baina aterpean.

144

Petti Buhameren bizia
 ez bada ere egiazkoa,
 alegiak agertzen du
 egiaren sentipena.

145

Nork du aise suportatzen
 beste gisaz bizi dena?
 Egun batez diferentziak
 sortzen du bere ogena.

146

Ikasten dugu eskolan
 gizona dela gizona.
 Bizi denak ikusten du
 ez dela hain nabaria.

147

Gaur ere, balizateke
 gauza horietaz errateko,
 gobernuak ez baitira lotsa
 jende tristen ehizatzeke.

148

Bego horretan egungoa.
 Ez gara filosofoak,
 baina horretara gaitu ekarri
 aurtengo gure süjetak.

149

Ez zaitezte arrunt joan,
 gora baita oraino ekia.
 Eta zerbait hartu gabe
 ez utzi gure herria.

urrendu: amaitu

buhameei: buhameei buruz
gogamen: pentsamendu
galdatau: eskatu
urrikal: erruki

ogen: kalte

balizateke:
 egongo litzateke, bai
lotsa: beldur

sujet: gai

arrunt: berehala
oraino: oraindino

150

Izan ontsa adiskideak
Pastoralzale fidelak
Züer gure esker hoberenak
Eta goraintzi beroenak

150

Izan ontsa, adiskideak,
pastoralzale fidelak.
Zuei gure esker hoberenak
eta goraintzi beroenak.

KANTA XI

Azken kantorea

k1

Laskaiko olatik ageri bortuak
Lanbako bidean hiru ütürriak
Baratze ederrak Beheti allean
Arto handiak aldiz peko ürrüpean
Arrokain ondoan milaka onddoak
Ükülarte zolan pausatzen ürzoak
Ühaitz bazterrian üsü Buhameak
Arrantzün abilki betatzen saskiak

Errepika

k2

Garindaine herrian o(ro)tan jakina da
Praube edo Buame ontsa jiten ziela
Haien historiak kontatzen etxetan
Haien ohidurak bizi bihotzetan

k3

Orai badütügü Mauletar jaunttoak
Peko Xüberotar, Basabürükoak
Txoriek bezala gustatü bazterrak
Heben laketurik altxatü habiak
Orok algarrekin herritar güziak
Etxeki dezagün üsantxa zaharrak
Mintzaje eijerra ikas dezan haurrak
Argitzeko beti Xübero xokoak

k4

Pastoral honek gütü oro bibilkatü
Goxoki mustraka dügü akabatü
Plazer handiekin deiziegü eskentü
Desbardin ez girela horrek dü agertü
Zühain üngürüan sortzen lantariak
Ez jakin segurki non diren erroak
Haizeak hedatzen hürünean aziak
Aberasten gütü besten kultüarak

KANTA XI

Azken kantorea

k1

Laskaiko olatik ageri bortuak.
Lanbako bidean, hiru iturriak.
Baratze ederrak Beheti aldean.
Arto handiak, aldiz, beheko urrupean.
Arrokain ondoan, milaka onddoak.
Ükülarte zolan, pausatzen usoak.
Uhaitz bazterrean, usu buhameak,
arrantzuan abilki betetzen saskiak.

Errepika

k2

Garindaine herrian, orotan jakina da,
pobre edo buhame ontsa jiten zirela.
Haien historiak kontatzen etxeetan.
Haien ohiturak bizi bihotzetan.

k3

Orain baditugu mauletar jaunttoak,
Peko xiberotar, Basabürükoak.
Txoriek bezala, gustatu bazterrak,
hemen laketurik, altxatu habiak.
Orok elkarrekin herritar guztiak
atxiki ditzagun usantza zaharrak,
mintzaira ederra ikas dezan haurrak
argitzeko beti Xibero zokoak.

k4

Pastoral honek gaitu oro biribilkatu.
Goxoki mustraka dugu akabatu.
Plazer handiekin dizuegu eskaini.
Desbardin ez garela horrek du agertu.
Zuhain inguruan sortzen landareak,
ez jakin segurki non diren erroak.
Haizeak hedatzen urrunean haziak,
aberasten gaitu besteen kulturak.

bortu: mendi

urrupea: erribera

uhaitz: ibai

jin: etorri

laketu: gozatu, atsegin hartu

atxiki: gorde

biribilkatu: bildu
mustraka: agerraldi

zuhain: zuhaitz